

Hezkuntza bandak



RUBEN
SANCHEZ BAKAIKOA
IRAKASLEA

Ekainaren 2an Oreretan ospatu zen (EAEko) euskal eskola publikoaren aldeko festan, gaur egungo publiko-itunpeko sistema duala gainditu eta murgiltze eredu bakar baten aldeko aldarria egin zuten. Hala nahi izatera, aspaldiko oinarri sendoena genuke, baina ez dut uste helduko denik. Bakoitzak gure bandakoekin jarraituko dugu.

Iraganaldian, edozein euskaltzalek onartzeko moduko bi gako dauzkagu:

- Elbira Zipitriak frankismo aurretik eta ondotik bultzatu zituen ikastolak, klandestinitatean euskarazko hezkuntza baten alde egin zuten andereño-irakasle eta gurasoen ekimen herrikoia.

- Gure auzokoa bezalako euskal eskola publikoak, A ereduaren ikasten ari ziren larru beltzeko 50 ume haiei –eta auzoko guztiei– euskarazko hezkuntza bat ematearen alde egin zuten guraso eta irakasleek ekimen herrikoia.

Orainaldian, berriz, teoriarik, gako gehienak alde daude: itunpeko ikastolak bokazio publikoz jaio ziren. Hezkuntza Publikoan –Arabako datuak, adibide gisa– D ereduak %75 da; eta B eta A ereduak hondarrekoak, %20,5 eta % 4,9 (maiz, hara “bideratu” dituzten umeekin osaturik). Hezkuntzan STEE-EILAS, LAB eta ELA sindikatuak nagusi dira, Eusko Legebiltzarraren ustezko aldeko osaketa (?).

Beraz, Katalunian 80eko hamarkadan egin zuten katalan murgiltze ereduaren antzeko bat egin genezake (?).

Geroaldian, ordea, zantzu guztien arabera, bakoitzak berean jarriko du lehentasuna; eta gauzak horrela, guraso belaunaldi bakoitzak eskola aukeratuko du hainbat faktoreren arabera: etxe azpian duena edo pixka bat haragokoa zeinek erakartzen duen gehien, zeinek dituen instalazio hobekiak, zeinek egiten duen euskararen alde gehiago, zenbateko kuota ordaindu behar den, ingeles maila eta abar.

Bueno, hori aukeratu ahal dutenek, noski. Beste familia guztiak pilatuko ditugu eskola jakin batzuetan, non irakasleria ez den egonkorra, non “hezkuntza proiektua” bezalako hitz konbinaketa iraina den, non ikasleriak txikitatik natural-natural ikasten duen zein den bere tokia *gure* gizartean.

Hala ere, lasai, murgiltze eredu baten alde leudekeen sindikatuak, alderdi politikoak, ikastolek eta abarrek, denek, egin dituzte –eta egiten ari dira, eta egiten jarraitzeko borondatea dute– beren gogoetak eta iradokizunak. Bati eta besteari atxikitzeko gonbidapena heltzen da, zein baino zein mamitsuago, argumentatuago, atseginago..

Hor gotortuko da bakoitza bestearen eraso dialektikoaren zain. ●

(Gertatu gabeko) Paralelismoak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Museoen %99k problemak dituzte bisitariak lortzeko, eta gainerako %1a gainezka dago”. Hala lako izenburua eman die Thysseneko zuzendariak kazetariei, museoak bisitatzeko kopuruak nabarmen gora egiten duen sasoiaren udan. Aise sumatzen da tonu kritikoa zuzendariaren adierazpenetan eta, are, salaketa: gero eta handiagoa da museoen arteko aldea, eta bakan batzuen aldeko oihartzun mediatikoak eragiten du horretan.

Berria irakurtzen hasi eta, ia hasieratik, une jakin baten esperoan egon zara. Izan ere, argi-argia da paralelismoa kulturaren edota artearen beste arlo batzuekin: proiektu bakan batzuek sobran dute publikoa eta (ia) beste guztiek faltan. Ziur zeunden, luze gabe gainera, zubi horrekin egingo zenuela topo albistean. Hala ere, informazioak museoan gainean soilik egin dizu solas.

Testuan gertatu gabeko paralelismoek zeure baitan jarraitu dute, kulturaren eremuaz harago, gero eta iradokitzaileago. Funtsean, eta ehunekoen tirania ankerra gogoan, ez ote zen zuzendari artistikoa humanitatearen desoreka pragmatuaz ari. ●